

Gerra Zibileko dokumentuen Eibarko bilduma



Identifikazioa

Erreferentzia-kodea	ES20600AME_CGCIVIL
Titulua	Gerra Zibileko dokumentuen Eibarko bilduma
Data	1904 / 1937
Deskribapen-maila	01 - Bilduma
Bolumena	35 mm-ko 11 bobina (mikrofilmak); 7.500 fotograma

Testuingurua

Ekoizlea

Marxismoaren kontrako Ikerketa eta Propaganda Bulegoak (OIPA) Eibarren 1937ko apirilean egindako konfiskazioak sufritutako alderdi politikoak, langileen elkarteak, erakunde publikoak eta partikularrak dira egileak. Estatuburuaren Idazkaritza Orokorraren menpe zegoen OIPA, eta hauxe zen haren zeregina: "komunismoak eta haren menpeko antolakundeek beren kanpainetan gure aberrian erabilitako era guztietako propaganda-materiala biltzea, aztertzea eta sailkatzea" eta, hala, etsaien informazio militarra edukitzea, kontrako propaganda egitea eta, batez ere, garbiketa-lana prestatzea.

Artxiboaren historia

Eibarri buruz Estatuko Artxibo Historikoan zegoen dokumentazio guztiaren kopia mikrofilmata eskatu zion Eibarko alkate andreak 1992ko otsailaren 12an artxibo horren Gerra Zibilaren atalaren zuzendariari, eta urte horretan bertan bidali zuten, mikrofilmaketari buruzko orri-zerrenda batekin.

Sartzeko era

Kopia mikrofilmatuaren erosketak.



Edukia eta egitura

Irismena eta edukia

Oso dokumentazio interesgarria da langile-mugimenduak, XX. mendeko lehen urteetatik aurrerako bizitza politiko eta soziala eta gerra zibilaren bilakaera Eibarren zelan izan ziren aztertzeko. Dokumentazio gehiena hauek osatzen dute: erregelamenduak, afiliazioak, 1934ko greba orokorreko gorabeherei buruzko txostenak, Batzokiaren, Centro Republicanoren eta Casa del Puebloren gutunak eta Tokiko Defentsa Batzordeen zirkularrak.

Antolaketa

Sail hauetan dago antolatuta: Bilbao, Santander "A", Santander "O", Santander "D", Santander "L" eta Liburutegi Osagarria.

Sartzeko eta erabiltzeko baldintzak

Sartzeko baldintzak

Izaera publikoa duen agiri-fondoa.
Sarrera libre, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/90 Legeak jartzen dituen mugekin.

Dokumentuen hizkuntza / idazketa

Gaztelania/euskara

Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak

35 mm-ko mikrofilma.

Deskripziorako tresnak

Inbentarioa

Gehitutako dokumentazioa

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokapena

Estatuko Artxibo Historikoa. Gerra Zibilaren atala (Salamanca).

Kopien existentzia eta kokapena

Eibarko Udal Artxiboa.

Lotura duten deskripzio aleak

Udalaren akten liburuak, 1904 – 1936
Ofizioen eta komunikazioen kopien liburu sorta, 1904 - 1939
Izen-emateen espedienteak





Argitalpenen oharra

- . - GESALAGA, Valentín. *Balentín Gesalaga 1910-1912*. Eibar. 1992
- . - LIZARRITURRI, Alejandro. *Memorias de un combatiente de la guerra civil*. Eibar, 1996
- . - GUTIERREZ AROSA, Jesús. *La Insurrección de octubre de 1934. La II República en Eibar*. Ayuntamiento de Eibar, 2001
- . - GUTIERREZ AROSA, Jesús. *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta*. Eibarko Udala, 2007

Oharrak

Deskripzioaren kontrola

Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbónek egin du deskripzioa, iturri dokumental zuzenetan eta Eibarko Udal Artxiboan (Eibarko Gerra Zibilaren bilduma) oinarrituta.

Arauak

ISAD(G) arauan partzialki oinarritutako deskripzioa, Udal Artxiboak garatutako jarraibide espezifikoen arabera.

Deskripzioaren eguna

2008-04-07

